


BERRIGARA

6. zenbakia JARDUN Elkarte Bergara 1994, urriak 28



Ehiza kontrolatua

8,5



U.T.B
5.000.000
pta.rako
3 urtera

3 URTETARAKO
GARANTIZATUTA



CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA

*GIARTZU eta
GERMAINE DE CAPUCCINI
nazioarteko kosmetikaren punta*



*MEMORY lineak zimurrak eta
bestelako zahartze-seinaleak gain-
ditzen lagunduko dizkizuten bi pro-
duktu eskaintzen dizkizu: Cell Op-
timiser Azalerako Emulsioa eta
Cell Optimiser Azalerako Crema.
Berreskura ezazu zure azalaren
oroimena.*

*MEMORYn aurkituko duzu zure
edertasuna.*

GIARTZU

Dermoestetika zentrua

*Sekula ez dira hidratazioa eta sua-
betasuna hain elkartuta egon. Fro-
ga ezazu zuk zeuk ALFA-CERAMI-
DASEk zure edertasunagatik egin
dezakeena.*

*GIARTZUk onena
erabiltzen du beti*



ERROTALDE JAUREGIA
10570 Bergara
Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarrekin
Plaza 18, Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R I D A ?


JAVIER LOIDI Bergarako Elkarriko bozeramalea

- Zertan datza aurkeztu berri duzuen "Zuk zer diozu" kanpaina?

- Euskal Herrian bakebidean aurrera egiteko eztabaidatu beharreko hamar gai garrantzitsuenak planteatu dizkiegu Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako herritarrei. Orain gai horiek eta akordiorako aukerak aztertu behar dira. Kanpaina honen azken urratsa Gabon aldera egin nahi den Bake Konferentzia litzateke. Hiri frantziarren batetan, posible balitz, partidu politikoak, ETaren ordezkariak eta aholkulariak bildu nahi genituzke.

- Bergaran zer egingo da?

- Bergaran ere erroldaren bitartez aukeratutako



100 lagunez osatutako eztabaida talde bat sortuko da. Ikastetxeetara ere Elkarriren mezua eraman nahi dugu, bideo emanldiak eta hitzaldiak antolatuko dira eta alderdi politikoekin egon nahi dugu. Gogoratu nahi dugu danontzako irekita dagoela Elkarri eta astelehenero 19.30etan Kultur Etxean biltzen garela.

"Pakea lortzeko eztabaidatu beharreko 10 gai planteatzen ditugu"

I T U R R I O N E T I K

Plazako eta Bideberriko kioskoak lekuz aldatuko dira

Plazako eta Bideberriko kioskoak lekuz aldatuko dira azaroaren 15etik aurrera. Gobernazio Batzordeak hartutako erabakiaren arabera, orain Plazan dagoena Komenio kalera (telefono kabinen ondoan) pasako da eta Bideberrikoa, berriz, Frontoiko monolitoaren inguruan jarriko da. Gobernazioak Plazan horrelako posturik ez izateko erabakia hartu zuen eta Bideberrikoa, arbola artean, ez zegoela lekurik aiposenean pentsatu zen. Leku aldaketa hau aporbetxatuz, kioskoetarako modelo berriak erabiliko dira, 4 x 2 m. inguru neurrikoak.

E S A N D U T E

"Gure burruka kalitatea, zerbitzua eta prezio ona eskaintzea da eta azken hori lortzeko kostuak jaitsi beharra dago. Batzuk ez dute ulertzen. Horri buruz hitzegiten dugunean, uste izaten dute prezioak jaitsi nahi ditugula eta kontua ez da hori, kontua da produktibitatea igo behar dela, tela kilometro bakoitzari ordu gutxiago eskaini behar diogula.

Kalitatea eta produktibitatea hobetzeko gai izan ezik, orduan ikutu behar izaten dira soldadak".

J. MIGUEL ZALDO
Tavex Taldeko presidentea
EL PAIS

"Oso garrantzitsua da baserriko lanetan segurtasun neurriak hartzea. Oso kontutan hartzekoa da baita lurraldearen egitura bera, zer nolako tokitan gabiltzan. Istripu asko gorputzaldi txar bategatik, edo kasu gehiegi ez diegulako egin edota konfiantza gehiegi hartu dugulako gertatzen dira. Konfiantzaren arazoa izugarria da".

MAITE ARISTEGI
EHNEko partaidea
EUSKADI IRRATIA




CUATRO BODAS Y UN FUNERAL

Larunbata: 22.30

Igandea: 17.00, 19.30 eta 22.15

Astelehena: 22.30.

Asteartea: 17.00, 19.30, 22.15.



EL PEQUE SE VA DE MARCHA

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00 eta 19.30

Igandea: 11.30



LA ESTRATEGIA DEL CARACOL

Osteguna 20.00

Zinea

▼▼ Mike Newell

zuzendariaren komedia honek izugarrizko arrakasta lortu du kritika eta publikoaren artean. Komedia onenetan bezala izugarrizko nahastea protagonisten artean, kasu honetan **Hugh Grant** (*Lunas de piel*), **Andie MacDowell** (*Matrimonio de conveniencia*) edota **Rowan Atkinson** (*Mr. Bean*). Ezkongabeentzako aproposa.

▼▼ Sólo en casa

filmearen arrakasta errepikatu nahirik, horra hor mundua hankaz gora jartzeko prest dagoen beste *trasto* bat. **Patrick Read Johnson**ek zuzenduta, bahitutako haur baten kasua azaltzen zaigu. Bahitzaileak damutu egingo dira berehala, segituan konturatuko baitira zein zaila den haur bat zaintzea.

▼▼ Sergio Cabrera

kolonbiarraren filme honek, besteak beste, filme oneraren saria jaso zuen iaz Valladolid, Biarritz eta Huelvako jaialdietan. Etxe zahar batetan bizi eta, hiri barruko berriztearen eraginez, etxea uztera behartuta dauden inkilinoen historia kontatzen zaigu. Azkenera arte borrokatuko dute...

Deiak

▼ **1944**an jaiotako bergararrek beren 50. urteurrena ospatuko dute azaroaren 26an. 7etan Santa Marinaran meza eta 9etan afaria Lasan. Izen-ematea: 764242 (Jesus Ape-rribai), 762833 (Elisa Ugarte) edota 762370 (Sánchez ileapaindegia).

▼ **1957**an jaiotakoen afaria azaroaren 19an 9etan Sirimiri jate-txean. Izen-ematea Intxorta tabernan azaroaren 17a baino lehen.

▼ **Jubilatuen** egun osoko mendi irteera San Marcosera azaroaren 3an. Izen-ematea 2.225 pta.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko bajuetan.

▼ **Indar** taldeak antolatutako Gazte Afizionatuen III. Bideo Lehiaketa. Argibideak: (945) 286142.

Ogia

▼ **Igandea 30:** Konde.

▼ **Asteartea 1:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 28:** Guallar/Morales.

▼ **Larunbata 29:** Estella/Azkoaga.

▼ **Igandea 30:** Estella/Español.

▼ **Astelehena 31:** Mozos/Corcuera.

▼ **Asteartea 1:** Camacho.

▼ **Asteazkena 2:** Puy

▼ **Osteguna 3:** Guallar.

BERGARA BOLTSAK

B B T T

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, naruzkoak, nylonezkoak, lanazkoak, etab.

✓ Denetariko konfekzio industrialak

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaiz, 1

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

UNIBERTSITATETIK PLAZARA

Arte Ederretako 7 ikasleren lanak, Karlos Galarraga bergararrarenak tartean, ikusgai Kultur Etxean

"Joan-etorriko bidaia" titulupean, gaur hasi eta datorren azaroaren 6ra arte, Iñaki Lazkoz, Patxi Gallego, Ruben Gómez, Nagore Agirre, Nerea Zapirain, Jon Manzisidor eta Karlos Galarraga Arte Ederretako ikasleen margo erakusketa ikusgai egongo da Kultur Etxeko erakusaretoan.

Karlos Galarraga bergararrak azaldu digunez, *"aurreko kurtsuan zehar eginiko lanak dira. Gure ustez onenak zirenak aukeratu (25 bat koadro denera) eta elkarrekin erakusketa bat egitea pentsatu genuen. Egia esan, pintatzeko eran ez daukagu barreman haundiegirik"*.

Egileak Arte Ederretako laugarren mailan ari dira eta erakusketa ibiltari hau guztien jaioterrira eramaten saiatu dira uztailean Zumaian lehena egin zutenetik: Manzisidor Zumaiakoa da, Lazkoz iruñearra, Zapirain Urrietakoa, Gallego Errenterikoa, Agirre ondarrutarra, Gómez bilbotarra eta Galarraga bergararra. Azken honek bere lana definitzerakoan zera adierazi digu; *"nik esango nuke keinu figuratiboekin egindako koadro abstraktoak direla"*.



Goian, Patxi Gallego errenteriarak erakusgai duen koadroetako bat.

Ismael Manterola Arte Ederretako Fakultateko Historia irakasleak zera idazten du Galarragaren lanari buruz: *"Karlos Galarragaren pinturak badu lotura 1970ko hamarkadan azaldu ziren mugimentuekin; hauek aurreko pintura-bizkuntza guztien jabe egin ziren, hierarkia haundiegirik ezarri gabe beraien*

artean, ez zuten abstrakzioa irudikorren gainetik jartzen eta alderantziz. Beraz pintatzeko erak besterik ez ziren eta hemen ere, Karlosek espazio piktoriko batean era ezberdinak jartzen ditu bere 'planimetriak' egiteko, guretzat abantaila bat du: erreferentzi erreala dute, hiri ezberdinei errefe-

rentziak daude: Erromako Campidoglioa, Siena...".

Gazte hauen lana, esan bezala, azaroaren 6ra arte ikusteko aukera izango duzu ohizko ordutegiarekin: astegunetan 6etatik 9etara eta astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara. Bergarakoarekin gainera amaiera emango diote uztailean martxan jarri zen erakusketa ibiltari honi. "Joan-etorriko" bidaia bukatutzat emango da. Ez galdu aukera...

"Karlos Galarragaren pinturak badu loturirik 1970ko hamarkadan azaldu ziren mugimenduekin"
Ismael Manterola, Arte Ederretako irakaslea

PINTURAS BERGARA

**P
B**

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
 Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO
 PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • ETAB...

Abertzaleak bat

Joan zen igandean, hurrengo lau urteetarako euskal legebiltzarkideak aukeratzeko hauteskundeak izan genituen.

Egia esan emaitzak, aurreikusita-koak izan ziren gutxi gora-behera, abertzaleek eurenari eutsi eta besteak (espainiar indarrak) gora egin dute, kasu batzuetan kezkarri izan daitekeen mailaraino (Donostiako alkate Ordoñez izan daitekela pentsatuta bakarrik, ileak beranak bezala jartzen zaizkit, puntan). Baina orain hasten da benetako borroka, paktuak, ezkontzak eta dibortzioak. Kezkarriena, orain guk, botoemaileok, ez dugula zer esanik, batzuren esku gelditzen bait da boto pilo baten erantzunkizuna, ea hori kontutan hartzen duten ezer erabaki aurretik, botoemaileen gehiengoa abertzalea dela eta gure eskubideak eta euskerak aurrera egiteko asmoz bozkatu zutela.

Paktu hauek izan daitekeen eragina askotan askotan txarrera joan daitekeela uste dut, hor dugu Donostian gertatu zena aurreko munizipalitan, indar abertzale bat izan zen boto gehien jaso zuena, baina alkate postua betetzen duena pentsakera guztiz kontrakoa da, eta gauza hauek botoemaile abertzalea piska bat erre egiten

dutela uste dut, eta bere botoaren indarra galdutzat jo dezakeela.

Besterik gabe, orain ariketa txiki bat ipini nahi dizuet: ea sopa de letras honetan nork asmatzen duen gobernu berriaren konposizioa

PNV-HB-EA, PNV-EA-PSE, PNV-PP-PSE, PNV-PSE-IU,...

J. A. (NAN: 15.279.079)

Eskerrik asko

Bergarako EAJ-PNVk berarengan konfidantza jarri dutenei hauteskunde hauetan, eskerrak eman nahi dizkie.

BERGARAKO EAJ-PNV

Diskoteka nahi dugula!!

Alkate Jauna:

Neska mutil talde batek idazten dizugu, Bergarako diskoteka ez isteko, gure Tartufoa. Guri esan digute, alkohola salduko duen diskoteka bat zabaldu nahi duzula eta guk alkohol gabekoa nahi dugu. Halaber esan digute ez dela autobusik izango eta oinez jeistek arrisku handia suposatzen du.

Tartufokoak oso gustora daude gurekin eta beraiek ere alkohol gabeko diskoteka baten alde egiten dute apostu. Firmak batzen ari gara, Tartufo berriz zabaltzeko, txikia da baina guri asko gustatzen zaigu.

Mesedez ireki berriro.


Berriz zabaltzen badute, orain arte igo ez duzuenok, animatu eta igo. Ondo pasatuko duzue.

NURIA G.

ETA BESTE 32 FIRMA

Tiira biraka

Jaun andreak, birgaitze sakon baten ondoren, berriz ere zuekin, Epi eta Blas, TBko pertsonai alaitsuenak...



ALEX UGALDE

Kaixo neska-mutilak



◆ **Argazki Ikastaroa**

Pol-Pol Argazki Taldeak argazki ikastaroa antolatu du azaroaren 7tik 18ra bitartean Zabalotegiko lokalean, 19.15etatik 21.00etara. Izen-ematea (2.500 pezeta, ikasle eta langabetuek 1.500) Kultur Etxeko liburutegian. Plaza mugatuak.

◆ **AHTren aurka**

Igandean, urriak 30, Abiadura Haundiko Trenaren aurkako mendi ibilaldi informatiboa egingo da Antzuolan. Irteera goizeko 10etan egingo da Plazatik eta bazkaltzeko babarrun jana egingo da Pikunieta baserrian.

JAIOTAKOAK

Iñigo Ena Gallastegi

Urriak 17

Asier Andoni Urbina Vigara

Urriak 13

Iosu Ugarte Juaristi

Urriak 19

HILDAKOAK

Marta Murga Minondo

Urriak 26

Gaurtik hasita Udazken Kulturala

Hitzaldia gaur eta danimarkar abesbatz baten emanaldia bihar

Gaur ostirala emango zaio hasiera aurtengo Udazken Kulturalako programazioari. Josetxo Urrutikoetxea Euskal Herriko Unibertsitateko Historia irakasleak "Konbentzio garaiko erronka: kanpoko eraso ala barruko gaitza" izenburuko hitzaldia emango du 7etan Kultur Etxean. Urrutikoetxeak 1766 eta 1833 urte bitarteko gizarte egitura gipuzkoarra aztertuko du, horretan nobleziak, nekazalgoak eta burgesia komertzialak jokatzeko zuten papeara azalduz eta gero eta nabarmenagoak ziren gizarte antolakuntzaren kontraesanak agertuz. Konbentzioko Gerrak, Seminarioaren itxiera ekarteaz gain, Gizarte Foralaren desorekak agerian utzi zituen.

Bestalde, bihar lehen musika emanaldia izango da 20.15etan Santa Marinnan Danimarkako Kammerkoret Camerata abesbatzaren eskutik.

Per Enevold zuzendariak 1965ean sortu zuen abesbatza honek hainbat sari lortu ditu munduan zehar eta bere sorreratik Danimarkako abesbatza famatuenetakoa bat da. Berpizkundeko musikatik gaurko abestietarainoko obrak biltzen ditu bere errepertorioak, bai *a capella* eta bai orkestrarekin ere. Era berean hainbat danimarkar egi-

leren lanak ezagutzera eman dituzte, tartean Holmboe, Thybo, Jersild edota Barfoedenak. Sarrerak 500 pta.tan jarriko dira salgai.

Azkenik, hurrengo ostiralean, azaroak 4, Jesus Palacios Errioxako Unibertsitateko irakasle ohiak "Los hermanos Delbuyar en Bergara" hitzaldia emango du 7etan Kultur Etxean.



Danimarkako Kammerkoret Camerata abesbatzak zapatuan 22.15etan emanaldia eskainiko du Santa Marinnan.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE


TAPIZERIAK

MOKETAK

ALFONBRAK

KRUZ GALLASTEGI

☎ 76 07 37



AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

◆ **Bi gizonezko hil egin dira lanean ari zirenean**

Udaletxea berritzen lanean ari zen Antonio Pazos López 45 urteko errenteriara aurreko ostiralean hil zen bihotzekoak jota. Udaltzainek eta Gurutzeko Gorriko kideek bihotzeko masajea egin zioten arren, Antonio Pazos ez zen bizirik heldu Arrasateko Ospitalera. Construcciones Amenabar enpresak lutozko eguna egin zuen berri txarra jaso bezain laister. Bestalde, Antzuolako Bidaurre baserriko Ascensio I. G. 58 urteko antzuolarra astelehenean hil zen Antzuola eta Bergara arteko pista batetan gidatzen ari zen traktorea irauli eta aldapa batetik behera jausi ondoren.

◆ **Bedelkarren oharra**

Asteazkenean, Dionisio P. Villarrek *"Presente y futuro del pequeño comercio"* izenburuko hitzaldia emango du 14.30etan Kultur Etxean. Izen- ematea, 76 04 68 telefonoan. Bestalde, astelehen goizean jantxidenda eta zapatadenda gehienak zabalik izango dira.

◆ **Mus Txapelketa**

Zapatuan 16.30etan Arranoko mus txapelketa jokatu da. Izen-ematea ordu erdi lehenago itxiko da.

◆ **Jubilatuen eguna Osintxun**

Jubilatuen eguna ospatuko da Osintxun azaroaren 6an. 11.30etan Aritzeta abesbatzak lagundutako meza, 13.30etan Aritzetaren emanaldia Frontoian, 14.00etan bazkaria Txuringon eta jarraian Arnorekin dantzaldia. Bazkarirako txartelak (2.500 pta.) Osintxuko tabernetan ostirala baino lehen.



Goiko argazkian, iazko Komiki Lehiaketako kategoría ezberdinetako irabazleak.

III. Komiki Lehiaketa antolatu du JARDUN elkarteak

Lanak aurkezteko epea abenduaren 12ra arte dago zabalik

JARDUN Elkarteak, Udala eta Diputazioaren laguntzaz, III. Komiki Lehiaketa konbokatu du. Bertan OHOk 6. mailatik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du eta lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Epaimahaiak euskararen aberastasun eta zuzentasuna, argumentoa eta marrazkien kalitatea eta orijinaltasuna baloratuko du. Lanak abenduaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira JARDUN Elkartearen (Masterreka 13, behea 20570 Bergara). Egilearen datu guztiak sobre batean sarturik entregatuko dira (sobrearen azalean lanaren izenburua adierazi beharko da) eta beste sobre batean lana bera (izenburuaz eta egilearen ezizenaz).


Aukeratutako lanekin erakusketak bat egingo da eta antolatzaileek urtebetez, lanak argitaratzeko eskubidea izango dute. Lanak taldean aurkezteko aukera ere izango da eta adinaren arabera 3 talde bereiztuko dira: OHOk 6., 7. eta 8. maila (2 orrialde gutxienez), 14 urtetik 18ra (3 orrialde gutxienez) eta 18 urtetik gorakoak (4 orrialde gutxienez).

Banatuko diren sariak honako hauek: lehen taldeko lehen hirurek 10.000, 6.000 eta 4.000 pta.ko sariak jasoko dituzte; 2. taldeko onentzat 15.000, 10.000 eta 8.000 pta.ko sariak egongo dira eta, azkenik, 3. taldeko sariak 35.000, 25.000 eta 15.000 pta.koak izango dira. Gogoratu, lanak aurkezteko azken eguna, abenduak 12.

Kizkur
ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea
OSTIRALETAN GOIZEKO 9etatik ZABALIK
 Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62



Txinpartak

LEGEBILTZARKIDE BERGARARRA

Mikel Zubimendi izango da Gasteziko Legebiltzarrean eseriko den bergarar parlamentario bakarra. HBk Gipuzkoan lortu duen seigarren legebiltzarkidea da Zubimendi eta Gasteziko parlamentuko 75 legebiltzarkideetatik gazteena izango da (25 urte ditu). Mikel Zubimendi zuzenbidea ikasten ari da Donostian eta orain dela 8 urtetik Jarraiko kidea da. Bertan bozeramale lanak egiten ditu Joseba Karmio eta Jon Salaberriekin batera.

UDALBATZA BEREZIA

Igandeko bozketetan Bergaran izandako emaitzei D'ont legea aplikatu eta Udalbatza osatuko bagenu, berezi samarra irtengo litzaziguke, gaur egungoarekin konparatuta ezberdina behintzat. Honela, HBk 6 zinegotzi izango litzuzke (gaur egun ere 6 ditu); EAJ-PNVk, 5 (gaur egun, 7); EAK, 3 (une honetan, 2); PSE-EEK, 1 (orain, 2); PPk, 1 (gaur egun ez du zinegotzirik) eta IUk beste bat (gaur egun ez du zinegotzirik).

Beraz, PP eta IUk zinegotzi bana lortuko lukete datorren udaberrian izango diren Udal Hauteskundeetan, joan zen igandeko emaitza beretsuak gertatuko balira. Bergaran ez da inoiz izan ez PPko ezta IUko zinegotzirik, orain arte egin diren Udal hauteskundeetan ez dutelako hautagairik aurkeztu. Datorren urtekoetan presentatzen badituzte aldaketak egon daitezke. Ikusi behar.

Bergarako emaitzak zonaldeka

	ERDIALDEA	MATXIATEGI	IBAIONDO	MARTOKO	IBARRA	OSINTXU	GUZTIRA
	1.036	415	265	318	272	143	2.449
	1.100	313	235	291	182	124	2.245
	697	201	104	146	97	49	1.294
	297	195	88	182	21	13	796
	241	74	31	63	15	12	436
	198	54	50	100	22	11	435
	14	5	4	4	0	0	27
BESTEAK	1	0	2	0	0	0	3
ZURIAK	56	11	8	22	6	4	107
BALIOGABEAK	16	10	4	1	0	0	31
BOTOAK	3.665	1.278	791	1.127	615	357	7.823
ABSTENTZIOA	% 34,4	% 38,3	% 44,5	% 42,6	% 41,6	% 36,4	% 38,7
ZENTSUA	5.574	2.073	1.426	1.966	1.053	562	12.654

Azken hauteskundeak

					EE				ABST.
1990 AUTONOMIK.	2.683 % 32,7	2.164 % 26,4	1.283 % 15,6	983 % 12	590 % 7,2	-	227 % 2,7	88 % 1,07	% 35,7
1991 UDALAKOAK	2.650 % 32,5	2.801 % 34,3	1.084 % 13,3	742 % 9,11	442 % 5,43	-	-	-	% 35,7
1993 OROKORRAK	2.451 % 28,8	2.168 % 25,5	1.369 % 16,1	-	-	1.313 % 15,4	489 % 5,7	320 % 3,7	% 34
1994 EUROPAKOAK	1.960 % 31	1.758 % 27,8	896 % 14,1	-	-	670 % 10,6	414 % 6,55	398 % 6,2	% 50,3
1994 AUTONOMIK.	2.449 % 31,3	2.245 % 28	1.294 % 16,5	-	-	796 % 10,1	436 % 5,5	435 % 5,5	% 38,7

Hezkuntza

Hezkidetz

- Zer da hezkidetz?


- Hitz hori eskoletan sartu dutenek hezkidetz neskato eta mutiko, neska eta mutilak berdintasunean hezitzea dela esan digute. Norbaitek pentsa dezake hori eskoletan aspalditxo egiten dugula; neskak eta mutilak berdintzatzen ditugula, batzuei eta besteei aukera berdina ematen dizkiegula, eta modari guztiz atxekitzeko, egiteko gelditzen zaiguna "os" jartzen duen tokian "-as" eranstea besterik ez dela.

- Berdin tratatzen al ditugu?

- Batetik, ez ditugula berdintzatzen esango nuke eta, are gehiago, neutralitate engainagarri baten edo itxukeriatan ez erortzeko, ez genituzke betik berdintzat behar. Eta bestetik, berdintasunean hezitzeak irakaslearen jarreratan aldaketak eskatzen ditu; eta aldaketak berez sortzen ez direnez, hortara bideratutako denborak, tokiak, baliabide materialak eta aktibitateak antolatzen ez ditugun bitartean, ez diegu benetan aukera berdina emango. Bitartean, fami-

liak eta gizarteak sortutako moldeak puskatzea eta eragindako ohiturak aldatzea ezinezko egiten zaigula erabiliko dugu aitakitzat.

Egia da gizartean era desberdinean bultzatzen direla nesken eta mutilen baloreak eta gaitasunak, neskei atxekitzen zaizkienak mutilekin zerikusia dutenak baino gutxiago baloratzen direlarik eta egia da, baita ere, familiak oinarrizko papera jo-



ANDONI ETXEBERRIA
(hezitzailea)

katzen duela gizakion balore sistemaren transmisioan.

- Zein paper jokatz du hezitzaileak?

- Gure lanean pertsonak dira hezigi daukaguna. Beraz, lehenbizi, sexu-genero estereotipoen gainetik, haur eta gazteak, bakoitzak pertsona

bezala dauzkan balore eta gaitasunak bultzatu eta landu beharko ditugu, aniztasuna eta ezberdintasunak onartuz eta errespetatuz.

- Zeintzuk dira balore eta gaitasun horiek?

- Gizarte honek portiera kodigo estandarrak sortzen ditu gizonezkoen lan munduarekin eta eremu publikoarekin zerikusia duten balore eta gaitasunak egokitzen dizkigularik: autonomia, autoestima, indarra, independentzia, agresibitatea, boterea, arrakasta...; eta emakumezkoen etxeko giroarekin eta eremu pribatuarekin zerikusia dutenak: afektibitatea, gozotasuna, leuntasuna, samurtasuna, entrega, dedikazioa, adikuntza... Emakumea eremu publikora irekitzean eta lan munduan sartzean "balore maskulinoak" bereganatzen eta "balore femeninoak" galtzen ari direla esan daiteke eta fenomeno honek berdintasunaren ikuspegi faltsua sor dezake.

- Eta benetako berdintasuna?

- Eskolan, jarrera negatiboak sor ditzaketanak (zapalketa, inposaketa) gara ez daitezen saiatu beharko genuke batetik, eta bestetik, galtzen ari diren balore horiek berreskuratu, bai emakumezko eta bai gizonezkoengandik orekaz konpartituak izan daitezten.

"Familiak oinarrizko papera jokatz du gizakion balore sistemaren transmisioan"



Balore negatiboak gara ez daitezen lan egin behar dute hezitzaileek.

KONTSULTA BERRIA

Cristina Garcíandia Mugica

DERMATOLOGIA, BENEREOLOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39
Lagun Aro Aseguruak Osasun Laguntza

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Faisanak eta erbiak babesteko ehiza kontrolatua

Antzuolako udalerrian jarri da martxan

Duela hilabete batzuk hasi da ehiza garaia gure mendi eta basoetan. Baina aurten Antzuolan ehizatu nahi duenak, behintzat, tramite berri batzuk bete beharko ditu. Diputazioak bultzatutako Ehiza Kontrolatua-ren programa berria jarri baita martxan. Bertako ehiztariak neurria ondo hartu duten bitartean, ekologistak eta Bergarako ehiztariak ez daude batere ados programa berriarekin.

Aurten Antzuolan Gipuzkoako Diputazioak bultzatuta proiektu berri bat jarri dute martxan, Ehiza Kontrolatua alegia. Horrekin faisanak eta erbiak Antzuolako eremuetan, behintzat, ehizatu ahal izango ez direnez, ugalteza espero dira. Ehiza denboraldia hasi ahala, Antzuolan ehizatu nahi dutenek, 50 pztaren truke, txartel bat eskuratu beharko dute, astelehen eta ostiral gauetan Eperra elkartearen.

Asteleheneko txartelarekin ehiztariak aste osorako izango du eta ostiralekoarekin astebukerarako. Txartel hori ez bada hartzen ez dago ehi-

zan aritzeko aukerarik, hori bai, txartela edozeinek lor dezake, antzuolara edo kanpotarra izateak ez du zerikusirik. Gipuzkoan Ehiza Kontrolatua sei herritan jarri dute eta Diputazioak guardak eta animaliak jartzen dituen bitartean, txartelen kontrola herri bakoitzeko ehiza elkarteak eramaten du. Peli Mugika, Eperra elkarteko kideak adierazi digunez, duela hilabete eta erdi Diputazioak emandako 240 faisana askatu zituzten Antzuolako mendietan. *"Horietatik batzuk galdu egingo dira, eta azeriek ere asko jango dituzte. Emaitzak bemendik urte batzutura ikusi beharko dira"* dio



Antzuolan ehizatu nahi duenak txartel bat eskuratu behar du.

Mugikak. Ehiza kontrolatua non hasten den jakiteko Eperra elkarteko kideek Antzuolako mugetan 200 tablila inguru jarri dituzte. Baina Mugikak esan digunez Berga-

ra inguruan beltzez pintatu dituzte eta Oñati aldean kendu egin dituzte. *"Hori protestatzeko edo izango da. Diputazioa parte eman dugu eta esan digutenez ez du in-*

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olio, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

A mets



- **HERGO** eta **HOBBY** karabanak eta **RIVIERA** autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI



Orain dela hilabete t'ardi Diputazioak emandako 240 faisian askatu zituzten Eperra elkartekoek.

portantziarik. Norbait Antzuolara sartzen bada eta guardak txartel barik harrapatzen badu lehenengo momentuan ez zaio ezer egingo. Orain, hurrengo baterako jakinean izango dira".

Ehiza Kontrolatuaz gain, Antzuolako eremuetan usoak ehizatzeke 39 puesto daude. Horrek urtero bezala jarraitzen du, egunero zozketak egiten dira eta asteburueterako, berriz, ostiralean. Gaur egun Antzuolan 100 ehiza lizentzia daude eta euren artean izan dira tirabirak, neurri berri horren aurrean. "Elkartean asanblada egin genuen

eta batzuei ez zaie gustatu. Batez ere kanpokoek, astean bi aldiz etorri behar baitira. Baina uste dut neurri honekin jendea kontzientziatuko dela eta pixka bat zaindu ezkeron egon daiteke zerbait biharko egunean" esan digu Mugikak.

"Zentzu gabeko neurria"

Bergara aldean antzuolarrek hartutako erabakiak ez du harrera batera ona izan, Oilagorrahiza elkarteko zuzendaritzatik esan digutenez. Euren ustez, Ehiza Kon-

trolatua Antzuolan jartzeak ez du zentzunik eta bestetik neurri horrek herriko ehiztariei sortzen dizkien kalteak kritikatzeko ditu. "Ehiza kontrolatuaren esperimentera Euskalerritik kanpo asko egiten da. Baina beldura handiko mendietan eta galtzeko zorian dagoen espezieak babesteko egiten da. Antzuolan ez dakit ze espezie egongo den babesteko. Nabi dituzten faisian guztiak aska ditzakete, baina astebeterako guztiak desagertu egin dira" diote Oilagorratekoek.

Faisanak gure mendietan inongo kontrol barik soltatzeko direla uste dute Oilagorrateko kideek. "Faisanak ondo hazteko ikerketa sakonago bat egin beharko litzateke. Biologoen bat edo adituen bat arduratu beharko litzateke eta ez oraingo moduan, diru pila bat ari direla gastatzen ezertarako balio ez duten errepoblazioak egiten". Gauzak horrela Oilagorratekoek erabaki horren azpian beste intentzio ba-

"Faisanak ondo hazteko ikerketa sakonago bat egin beharko litzateke. Ez oraingo moduan, diru pila bat ari direla gastatzen ezertarako balio ez duten errepoblazioak egiten". OILAGORRA ELKARTEA

20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen

ederju

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

tzuk ikusten dituzte. "Antzuolarrek beti nabi izan dute eurena eurentzako mantentzea. Ezin dute nez koto pribaturik jarri borrelako inbentu bat jarri behar izan dute, kanpoko ebiztariei gauzak zailtzeko. Zeren lanagatik edo beste gauza batzuringandik askok ezin dugu txartel horien bila joan eta orain arte Gorlan lasai asko ibili izan garenok ezin izango gara igande goiz baten txakurrarekin buelta bat ematera ere joan. Kontutan izan behar da ebiztari askok ezin dutela kotoa ordaindu eta bertan ebizatu behar duela".

Ekologistak ere aurka

Antzuolan hasi berri den Ehiza Kontrolatuaren aurka agertu dira ekologistak, EKI taldekoa den Migel Angel Lizarralde esan digunez. Alde batek ez dute logikoa ikusten faisanak mendietan askatzea, ez baitira bertakoak. Halaber, birpopulaketan aurka azaldu dira. "Birpopulaketak oreka ekologikoa apurtzen duenez, abereen populazioa arriskuan ez dagoenez, ez da egin behar. Ebiztari naturazaleek ere guk bezala pentsatzen dute eta horri buruz gehiago jakin nahi duen ebiztariak irakurri beza Migel Delibesen 'El ultimo coto'

liburua" dio Lizarralde. Birpopulazioaz gain, Lizarralde animaliekiko erlazio desberdinak erai ki behar direla dio. "Arauditik at, Ehiza Kontrolatuaren aurkako arrazoiak etikoak eta filosofikoak dira. Honek, besteak beste, animaliei beharrezko ez den sufri-mendurik ez ezartzea eskatzen du, baita beharrezkoa ez denean ez hiltzea ere".

Guzti hori ikusirik, EKIk kideak onartezintzat jotzen du Ehiza Kontrolatuaren proiektua eta aldi berean, Antzuolan usoentzako dauden postuak kentzea eskatzen du.

Afizio garesti samarra duten 354 bergarar

Bergaran gaur egun, 354 ehiztari daude lizentziarekin eta duela bost edo sei urte, 510 lizentzia zeuden. Kopuru murrizketaren errudun nagusitzat Oilagorraren zuzendaritzakoek, administrazioaren aldetik dauden trabak ikusten dituzte. "Orain elkarte autonomo bakoitzeko ehiza baimen bat behar da. Armen baimena berrizteko orduan, 60 urte baino gehiago dutenek bi urtez behin berriztu behar dute eta 70 urtetik aurrerakoek urtean behien. Gainera, ehiza gutxi dagoenez eta traba legalen erruz, lizentziak gutxitu egin dira". Esan daiteke ehiza afizio garestia dela. Txakur on batek 50 mila pztatik gora balio du eta horri, eguneroko txakurraren mantenimentua gehitu behar zaio. Eskopeta batek 100 mila pza balio ditu eta ehiza koto normal batek, Gaztelan edo Errioxan, ehun mila pza balio ditu.



Euskal Herritik kanpo ehiza kontrolatua hedadura haundiko mendietan eta galtzeko zorian dauden espezieak babesteko egiten da.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

UDA

Nik udari buruz hitz egingo dut. Uda oso berezia da, udan jende berezia ezagutzen da, herri asko ikusten duzu eta oso ondo pasatzen duzu denbora: piszinetan, hondartzan, etab.... Baina gero lehengo bizitza egiten duzu, eskolara bueltatzen zara eta dena ahazten duzu. Ondoren, abuztuko oporrak iristeko irrikatzen zaude. Eta norbera konturatu gabe pasatzen da denbora eta udako lagunak ikusten dituzu berriro.

Irene (8. maila)

ONDO ETORTZEN ZAIZKIGU OPOR BATZU

Oporrak, guk maite ditugun gauza batzua dira. Guk oporretan, bai Gabonetan bai udan ondo pasatzeko, lagunei deitzen diegu, jolasten dugu, baina jolastu ondoren lanak, eskolako lanak egin behar dira. Hori inori ez zaio gustatzen, baina egin behar dira. Beno nik ez dakit nork asmatu zituen oporrak, baina pertsona horri maitasunez eskertzen diot, bai horixe! Beno, hau da nire iritzia oporrei buruz. Kontatuko dizuet gehiago. Agur!

Iñaki Alonso (7. maila)

Bergarako martxa

Nik Bergarako dantza-
lekuei buruz hitzegin
behar dut. Bergara
"erroilo" bat da. Tartu-
foa dago baina jendea
ia ez da joaten, baka-
rrik larunbatetan eta
igandetan. Gero Etxe-
nagusia eta Ganbara
daude, baina hara
jende nagusia
bakarrik joaten da eta
guk gazteok hara ezin

dugu joan, jai batzu-
tan salbu.

Ermuara joaten zara
eta han hemengo jaie-
tan dagoen jendea
egoten da. Eta Berga-
ran zergatik ez? Ben-
ga! Animo eta atera
kalera ondo pasatzera
lagunekin.

Joana eta Irene (8 maila)

Sofia eta Estitxuri

elkarrizketa

Sofia eta Estitxu gure
gelakoak (5. maila) "La
Pueblan" egon dira
udalekuetan eta
elkarrizketa bat egin
diegu:

- Zein udalekuetan
egon zarete?
- La Puebla de
Labarkan.
- Zer egiten zenuten
han?
- Jolastu, eskutitzak
bidali, piszinetan
bainatu eta gauetan
jaialdiak, dantzaldiak...

- Neskak bakarrik egon
zarete?
- Ez, neska eta mutilak.
- Zenbat neska-mutil
egon zarete?
- Berrogeitamar.
- Ondo pasatu duzue?
- Bai, baina janaria oso
txarra iruditu zaigu.
- Datorren urtean ere
joango zarete?
- Beste udaleku
batetara bai, baina La
Pueblara ez!

Soraya (5. maila)

Oporrak

**Pozik ibili gera
aurten oporretan
Salou, Galizia eta
Madrیدهko puntan**

**Orain etorri gera
berriz hona bueltan
berriro joango gera
hurrengo urtean**

**Oporrak bukatu dira
Agur hondartzara
ta berriro ikasteko
Kaixo! Eskolara**

**Irrikatzen gaudelarik
Abendurako
barnetegira joateko
ta euskera lantzeko**

**Barnetegia eta gero
Gabonak datozte
Aste Santua eta gero
Oporrak datozte**

ASMAKIZUNA

1. Kajoi batean katuak daude. Katu bakoitza eskina batean. Katu bakoitzak hiru katu ikusten ditu. Zenbat katu daude?

077


2. Zuhaitz batek hamabi adar ditu. Adar bakoitzak hogeitahamar adartxo eta adartxo bakoitzak zazpi hosto.

URTEA

Joana Luceño (8. maila)

ESKERRETIK ESKUINERA

1. Meza entzuteko lekua.
2. Seigarren hizkia.
3. Semeak.
4. Zuk pluralean.
5. Katolikoaren sinboloa.
6. Hodeietatik ateratzen dena.
7. Edateko.




Txistea

Hau gizon bat da, bere semeak notak ematen dizkio eta kateatu egin du. Eta aitak esaten dio:

- *Beti berdin, kateatu egiten duzu. Zure andereñoarekin hitz egingo dut. Eta andereñoarengana joaten da.*
- *Zergatik kateatzen du beti nere semeak?*
- *Ba zuen semeak beti albokoari kopiatzen diolako. Besteak 9 galdera egiten ditu eta gero 10.ean "ez dakit" jartzen du eta zure semeak "nik ere ez" jartzen duelako.*

GOITIK BEHERA

8. 300
9. Lapurtzen duenak.
10. Bastoia.
11. Erropa gordetzeko lekua.
12. Ilunaren antonimoa.
13. Ikusmenaren organoa.
14. Animalia (Hipikan).



Hauteskundeen ondoren, nolako gobernu gustatuko litzaizuke osatzea?



Luis Etxabarri
34 urte, langilea

Alderdi abertzalez osatutako jaurilaritza gustatuko litzaidake. EAJ-PNV eta EA edota EAJ-PNV, EA eta HB. Azken hau gustokoago dut.



Flora Serrano
34 urte, langilea

Politikarengan ez daukat itxaropen handiegirik. Igandean ez nintzen botoa ematera joan, nire gustoko aukerak aurkitu ez nituelako.




Eneko Tabuenka
20 urte, langilea

Egia esan ez diot inportantzia gehiegi ematen kontu horri. Igandean ez nuen bozkatu, beraz, parra samar dit. Politikatik paso egiten dut.



Ezosi Akizu
35 urte, etxekoandrea

EAJ-PNVk alderdi abertzale bat izan beharko luke gobernuakide. Nahiago nuke EA edota HBekin gobernatuko balu, PSE-EE edo beste partidurekin baino.



Jose Mari Zurutuza
36 urte, langilea

Gauza bat niri zer gustatzen zaidan eta beste kontu bat herriak zer bozkatu duen. PSE-EE ezin da baztertu eta EAJ-PNVren beste gobernu kidea, EA.



Izaskun Azpiazu
34 urte, langilea

Gobernu abertzalea izatea nahiko nuke, EAJ-PNV, EA eta HBk osatutako hiruko gobernu abertzalea.

LASTER IREKITZEKO (urriaren 28an)

Obstetrizia eta Ginekologia Kontsulta Serrano Doktorea

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA •
- ANTISORKUNTZA • MENOPAUSIA •
- BULAR PATOLOGIA • ZIRUGIA •

- HAURDUNALDIA • JAIO AURREKO DIAGNOSTIKOA • ESTERILIZAZIO KIRURJIKOA (GIZONAK / EMAKUMEAK) • ANTZUTASUNA •
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA •

PREZIO BEREZIAK, 25 URTEZ BEHERAKO, ETXEOANDRE ETA ZAHARRENTZAT (LAGUN-ARO ASEGURUAK, IGUALATORIO MEDIKU-KIRURJIKOA...)

San Martin Mediku Zentrua

Ramon Maria Lili, 2 (LASA Jatetxea zegoen atzekaldean) BERGARA. Tfnoak: 76 59 39 / 72. Faxa: 76 25 72



Politika fikzioa

Joan zen igandeko hauteskundeek panorama politiko berri bat sortu dute Euskal Autonomi Elkarte mailan. Talde bakoitzak dituen parlamentario kopuruekin era guztietako sigla nahasketak egin litezke. Paisaia horren parekoa, maila txikiagoan, izango genuke Bergaran bertan ere, Eusko Legebiltzarreko emaitzak Udal mailara ekarriko bagenu. Halako jokoetan sartzeak arrisku handiak ditu dudarik gabe udaberrian egingo diren udal hauteskundeetan beste faktore batzuk, batez ere zerrendaburuak herri mailan duen izenak eta prestijioak, eragin handia izan baitute.

Legebiltzarrerako hauteskundeetako emaitzak Udal mailan aplikatuz gero, honela osatutako Udalbatza izango genuke Bergaran: HBko 6 zinegotzi, EAJko 5, PSEko 1, PPko 1 eta IUko 1.

PP eta IU Udalean sartzea izango litzateke nobedade, baldin eta kandidaturarik antolatzea lortuko balute. Bestalde, EAJk alkatetzari eutsi ahal izateko PSE baino sozio gehiago beharko litzuzke, gehiengo lortzeko bederatzi kontzejal beharko baitira.

Bestalde, hauteskundeok ematen duten ondorio nagusia hau da: HB, EAJ eta EAren azken kontzejalak eta PP eta IUrenak 50 boturen alde txikia dutela eta, beraz, udal hauteskundeetan botu bakoitzaren bila amorratuta ikusiko ditugula alderdiak, zinegotzi banaketa alde batera zein bestera mugi baitaiteke. Beraz, udaberrian, hautagai erakargarriak eta botoa lortzeko hil ala biziko borroka.

Juan Antonio MIGURA



Hauteskundeak eta gero

Hauteskundeak hurbil baino hurbilago bizi behar izan ditugunok susto haundirik jasotzerik ez geneukala deritzot. Inkesten itsasoan erdi itota, zurrumurrutan esaten diren egi erdi ugari entzunda eta alderdien benetazko arrakasta bertatik ikusita, sorpresarako leku haundirik ez bait da gertzen. Hala edo nola, ireki dira urnak, zenbatu botoak eta hor ditugu hurrengo lau urteetarako emaitzak. Hor parlamentu berria eta hor (batek daki non), hurrengo jaurlaritza.

Sorpresa haundirik ez baina inork ez zuen PSEk hartutako belarrondokoa espero. Sustorik apenas, baina dardara bizian jarri ziran hainbat burukide Gasteizeko emaitzak ikusi eta UAren indarrak ohartzean. Dena erabakita zegoela uste zutenek ere Garaiakoetxeak oraindik ere zer nolako arrakasta mantentzen duen ikustean begiak zabaldu egin behar izan dituzte. Eta zer esan Herri Batasunari emaitzarik kaxkarrenak desio ziotenek!

Ez da aldaketa haundirik gertatu, baina oraingo legebiltzarrak ez du zerikusirik aurrekoarekin. Zazpi indar eta zazpi talde parlamentarik hurrengo jaurlaritza osatzea tokatzen zionari ez diote inolako erreztasunik ematen, eta ezta gehiengoen dantzak ere.

Hain egoera nahasiarekin ondorio garbirik ateratzea ez da batere erreza, baina bat aipatzearen zera esango nuke, Euskal Autonomi Elkarte abertzaleok gehiengoan mantentzen garela baina indar espeiniarrek gero eta esparru zabalagoa lortzen dihardutela. Zerbait asmatu egin behar gure herriaren atal hau Rosa Dízek esan bezala Espainiako beste edozein autonomia bezalako izan ez dadin.

Martin GARITANO

MARQUES

"Curvas subjetivas"



NAHIKARI TABERNA
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkari eta
afariak**

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR



N A B O 1995



Estatu Batuetan argitaratu den egutegiaren azalean, Aranzadi Ikastolako dantzariak.

Egutegi amerikarrean

Pedro Luis Ormazabal argazkilarik bergararrak **NABO** (*North American Basque Organization*) kaleratu duen 1995eko egutegia bidali digu. Estatu Batuetako **Boise (Idaho)** herritik. Egutegia benetako dotorea da eta argazki ikusgarriak erazten ditu. Portada gainera Pedro Luisek Aranzadi Ikastolako dantza taldearen 1980. urte inguruan San Martzialen ateratako argazki bat erakusten da. Pentsa dezakegu San Martzial gero eta ezagunagoa egingo zaiela eusko amerikarrei. Ea erromeriaren etortzeko animatzen zaizkigun...

Bertsoak egiten ikasten

Aurreko ostiralean hasiera eman zitzaion Kartzela Zaharrean **JARDUN Elkarteak** antolatutako **bertso ikastaroari**. Hemendik abendura bitartean, ostiralero, bertso-laritzaren sekretuak ezagutzen saiatuko dira 16 bat lagun **Ainhoa Agirrezaldegi** gazte bergararraren eskutik. Lehen egunekoa ikusita, interesa behintzat ez zaie falta. Ikusi egin behar zer nolako maila ematen duten ikastaroa amaitutakoan. Akaso, "azterketa" modura, bertso jaialdiren bat antolatu behar Gabonetarako...



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal imprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

ZAPELAITZ Taberna

Eguneko menuak
Astelehenetik ostiralera
San Lorenzo, 25 BERGARA

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA




Zutik: Jokin Guridi eta Eneko Iturrospe (galanperna eskuetan duela). Makurtuta: Mikel Larrañaga eta Miguel Angel Sánchez.

Galanperna erraldoia

Aranzadi Ikastolako 6. mailako ikasle hauek eskuan duten Galanperna eder hori topatu zuten aurreko astean **Gurutzeberrin**, Eskoriatzan. Gaztetxoak **Pol-Pol** Mendizale taldeko kideak eta mikolojiazaleak dira eta, hasteko, aurkikuntza aipagarria egin dutela aitortu behar da. Afari-merienda-txo bat egitea pentsatuta zuten arren, galanperna usteltzen hasi da dagoeneko. Hurrengo batean izan behar...

Argazki Rallya



Jose Luis Feo Bergaran bizi den arrasatearrak irabazi zuen Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako argazki-rallya. Bigarren Miguel Angel Otxoa legazpiarra izan zen, Jose Aguayo bergararra hirugarrena, herriko onenaren saria Jose Agustin Gurrutxagarentzat izan zen eta, azkenik, Maitane Laskurainek gazteentzako saria

eraman zuen. Larunbatean banatu ziren trofeoak eta jarraian aurkeztutako lan onenen (guztira 44 argazki-

lari eta 264 argazki jaso ziren) proiektioa egin zen Pol-Pol Argazki Taldeak Zabalotegin duen lokalean.

Goian, Jose Luis Feok aurkeztutako argazietako bat.

Zertan dihardute ba?



Ainhoa Sanz 19 urteko bergararra dugu Bergara K.E.ko nesken futbol taldeko masaje-emalea. Ainhoak iaz masajeari buruzko ikastaro bat egin zuen Tolosan eta irailetik taldearekin lanean ari da. *"Trailetik astean 3 egunetan beraiekin izaten nintzen baina ikasturtea hasi zenetik partidu egunetan bakarrik joan naiteke"*. Ainhoa Sanz Psikologija ikasketak egiten ari da Donostiako Fakultatean. Bere hitzetan, *"taldeak basiera ona izan zuen baina azken 3 partiduak galdu ditugu. Dena den, jokalaria gebienak, gibarrei dagokienez behintzat ondo daude"*.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA


IBAI GRUAK 
ZERBITZUA EGUN OSOAN
 San Juan, BERGARA.
 ☎ 908-67 68 21 (mobila) / 900-59 59 59

Santiveri **IZADI** PILI GISASOLA
 Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

Luisi Domínguez

Luisi Domínguez enterradorea (33 urte) 13 urte zituela hasi zen kanposantuan lanean, aitari laguntzen. Gaur egun ezkonduta dago eta 2 alaba dituzte.

- Zergatik enterradore?
- Tradizioagatik. Aitona eta aita enterradoreak izan ziren... eta beste edozein lan baino gehiago gustatzen zait.
- Laneko gauzarik onena?
- Jendearekin daukadan tratua.
- Eta txarrena?
- Ez dagoela ordutegirik. Beti lanaren menpe...
- Noiz hiltzen da jende gehiago?
- Abenduan eta urtarrilean. Hotzak zerikusia izango du...
- Lana gauzez ala egunez?
- Berdin zait.
- Zer lurperatuko zenuke?
- Enbidia.
- Kanposanturik politena?
- Bergara, Zarautz eta Mutrikukoa.
- Bergaran berririk egingo da?
- Bai, baina ez da beharrezkoa.
- Zenbat hildako urtean?




"Tradizioagatik naiz enterradore eta beste edozein lan baino gehiago gustatzen zait. Txarrena? Ez dagoela ordutegirik. Hildakoei ez diet beldurrik, bizidunak dira arrikutsuak. Enbidia lurperatuko nuke"

- 130-140 bat.
- Kanposantua loreekin ala lorerik gabe?
- Loreekin, baina pasatu gabe.
- Egunean zenbat bisitari?
- 100 bat. Gero eta gehiago gainera...
- Zarata arraroak entzuten al dira kanposantuan?
- Ez. Hildakoei ez diet beldurrik, bizidunak dira arrikutsuak.
- Tristura kentzeko onena?
- Lan egitea.
- Beldurrezko filmeak atsegin?
- Bai.
- Egunkariko zein sekzio irakurtzen duzu lehenbizi?
- Eguraldia (lanagatik), kirolak eta politika.
- Kirol bat?
- Xakea.
- Hamarretakoa ala merienda?
- Hamarretakoa.
- Beldurra zeri?
- Kotxeari.
- Heriotzari heltzen denerako, nolakoa?
- Inzineratu.
- Hiltzea garestia al da?
- Bai seguruarekin 250.000 pta. inguru eta seguru barik 400.000.
- Zein futbol taldetakoa zara?
- Real Madridekoa.
- Aurten, zer?
- Afari bat jokatu dut bigarrenari 6 puntu aterako dizkiola.




Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

IÑAKI egur estaldurak

**OHOL ZORUEN LEUNTZEA
LIXATZE ETA BARNIZATZEA
SITSAREN AURKAKO TRATAMENDUA
PARKETA ETA TARIMA JARTZEA**




Mekolalde, BERGARA
☎ 76 45 05 / 16 00 61 (gauzez)

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Fernando Azkarate

Fernando Azkaratek jaso du aste honetan BONOFOTOk saria, orain dela bi aste egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen Berpizkunde garaiko jauregiaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena: **Errotalde Jauregia, 1989. urtean Kultur Etxe moduan zabaldu zena.** Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Fernando Azkarateri** eman dizkiogu.

Zorionak!!

Latinez idatzitako ze esaldi irakur dezakegu Bergarako kanposantuaren (Neoklasiko estiloko eraikuntza) sarreraren goikaldean, atearen ezker-eskubian?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ETXEBIZITZA

Amueblatu gabeko **pisua** alokatuko nuke.
☎ 76 34 48 (Yolanda).

Pisua salgai Artekalen.
☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun.
☎ 76 50 05 (Josune).

Etxea alokatzen da Martokuan.
☎ 76 14 60.

Pisua alokatzen da Matxiategin.
☎ 76 46 15.

Pisu amueblatua salgai Bolun.
☎ 76 10 75 (gauetz).

Garajea salgai Ibargarai kalean.
☎ 76 00 93.

Pisua alokatzen Zubiaurren.
☎ 76 13 85.

Pisua salgai Martokua 18an.
☎ 76 00 51.

Pisua salgai Artzamendin.
☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an.
☎ 76 13 93.

Pisua salgai Zabalotegiko Torrean.
☎ 76 33 19.

Pisua salgai San Migel kalean.
☎ 76 02 13 (goizez).

Pisua alokatzen da Irizar ibilbidean.
☎ 76 21 28.

Garajea saltzen da Ibargarai kalean.
☎ 76 44 25.

DENETARIK

Ford Fiesta Ghia SS-T salgai.
☎ 76 15 40/16 18.

Medailoi eta katai bat galdu ditut Matxiategi eta Mugertza artean. Sarituko da.
☎ 76 12 86.

Urrezko belarritako bat (aroduna) galdu dut.
☎ 76 25 52.

Ski pare bat salgai (9-12 urtekoentzako).
☎ 76 16 92.

ESP Horizon baxoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai.
☎ 76 56 61 (Ibon).

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG).
☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault Express diesel kotxea salgai (berri-berria).
☎ 76 50 70.

Zibro estufa salgai (egoera onean).
☎ 76 12 86.

Trial Ossa (350 cc.) motoa salgai.
☎ 76 37 42.

Estufa japoniarra salgai.
☎ 76 45 18.

Ordenadore merke bat erosiko nuke.
☎ 76 08 19.

Armairu bat (1.80 m.koa gehienez) erosiko nuke.
☎ 76 59 15 (Jose Luis).

LANA

Ingeles klaseak.
☎ 76 22 90 (Ainhoa).

BBB 3.eko matematikako klaseak hartuko nituzke etxean.
☎ 76 38 71 (Larraitz).

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut.
☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filolojian lizentziatua, ingeles klaseak.
☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak.
☎ 76 24 31 (Eneko).

Neska batek etxeko lana egingo lituzke.
☎ 76 53 21.

Perfumeak saltzeko lana eskeintzen da.
☎ 75 10 07 (Raquel).

Fisika eta matematika klaseak.
☎ 76 24 57.

Lokalak garbituko nituzke.
☎ 76 51 76 (Leire).

Matematika klase partikularrak ematen dira. Zubieta 2, 1.goa eskuma (Jesus).

Erizain laguntzaileak zaharrak zainduko lituzke (gauetz ere bai).
☎ 76 47 71.

Aleman klaseak. Tituloduna.
☎ 76 12 77 (Maite).

Matematika finantziario klaseak.
☎ 76 05 43.

Zaharrak zaindu, etxea garbitu, dendaren batean lagundu edo jostunen batekin lan egingo nuke.
☎ 75 24 47.

Haurrak zainduko nituzke.
☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut.
☎ 76 26 63.



POL-POL
TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO
TABERNA

☎ 76 01 51

EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab...

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana motarik egokienaren berri eskatzea

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

KIROL KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Intxaurreondo
Lehen erregionala.
Igandea, 15.45. Agorrosin.
Bergara-Urretxu
Emakumezkoak.
Larunbata, 17.00. Ipintza.
Bergara-Aloña Mendi
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
Bergara-Urola
2. mailako kadeteak.
Asteartea, 11.00. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Iturribero
Kadete neskek.
Igandea, 11.00.
Bergara-Azkartza
Jubenil neskek.
Igandea, 12.15.
Bergara-Bidebieta
Jubenil mutilak.
Asteartea, 12.15.
Hirurak Kiroldegian.

► **Saskibaloia**

Bergara-San Benito
Kadete mutilak.
Larunbata, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.

► **Pelota**

Gipuzkoako Liga:
Bergara-Eibar
Kadeteak binaka.
Bergara-Añorga
Juniorrak binaka.
Ostirala, 22.00. Frontoia.
Profesionalak:
• Anotegi eta Oliden /
Telletxea eta Lasa III
• Unanue eta Errasti /
Nagore eta Zezeaga
Larunbata, 16.30. Frontoia.

Kirola eta anaikidetasuna bat eginik V. Fontsi Memorialean

Larunbatean Alfonso Miner "Fontsi" zena-ren oroimenezko V. Fontsi Memorialela jokatu da.

Goizeko 8etan Seminarioan 12 orduko futbito txapelketa hasiko da: bertan 16 bat talde izango dira lehian eta txapelketa kanporatze sistemaren bitartez jokatu da. Futbitoko finala 7etan izango da eta 8etan sari ematea (txapeladunek 30.000 pta. eta trofeoa eskuratuko dute eta txapeladun-ordeek 15.000 eta trofeoa). Aurretik, eguerdian, salda eta txorizoa banatuko dira Seminarioan bildutakoen artean eta 4retan hiruko saskiratzeez txapelketa jokatu da.

Bestalde, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatutako Mendiko Bizikletaz ibilaldia ere iragarri da 14.30etan. 14 urtetik gorakoentzat 36 Km.ko ibilbidea prestatu da eta hortik beherakoentzat 16 Km.koa. Bertan edonork parte hartu ahal izango du eta izen-ematea irteera izan baino 5 minutu lehenago itxiko da Seminarioan bertan (buruko babesa derrigorrezkoa izango da eta partaide gutxiei kamiseta oroigarri



Mendiko bizikletaz ibilaldia arratsaldeko 14.30etan irtengo da Seminariotik eta inguruko mendietatik zehar buelta emango da.

bana emango zaie). Federatuek 400 pta. ordaindu beharko dituzte eta

federatu gabeek 600 (14 urtetik beherakoak dohain).

Gimnasia Erritmikoko Gipuzkoako txapelketa larunbatean kiroldegian

Larunbatean arratsaldeko 6retatik aurrera Taldeko Gimnasia Erritmikoko Gipuzkoako Txapelketa jokatu da Labegaraieta Kiroldegian. Bergarako Ariznoa taldea, Donosti, Hernani eta Ipurua taldeko neskatilekin (alebin eta jubeniil mailakoak) arituko da lehian. Froga Espainiako Txapelketarako baliagarri izango da. Amaieran, Amaia Uriondo 19 urte-

ko gimnasta donostiarrari omenaldia egingo zaio. Amaiak Parisen jokaturako Munduko Txapelketan zilarrezko domina lortu du Espainiako selekzioarekin. Orain erretiratu egin da eta zapatuan Ariznoa taldeko 6 gimnastek oroigarri bat emango diote eta Gipuzkoako Federazioak lora sorta bat. Halaber aureskua dantzatuko zaio.

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

ileapaindegia
eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJA

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

Iban Rodriguezek ezin izan zuen Espainiako Txapelketa Bergarara ekarri

100 bat bergarar (2 autobus) abiatu ziren joan zen igandean Jaramako zirkuitora Iban Rodriguezek Clio 16 balbulatan korritu zuen karrera ikustera.

Itxaropena eta alaitasuna nabaria zen goizaldeko 5etan Bergaratik irten ziren zaletuen artean, baina Madrileko zirkuitoan gertatutakoa ikusi ondoren tristura, amorroa eta inpotentzia nagusitu ziren itzuleran.

Izan ere, bergararrak ia eskuetan zuen Espainiako txapelketa, baina suerte txarra izan zuen eta ezin izan zuen podiuren goreneko mailara igo. Entrenamenduetan denborarik onena egin ondoren, lehendabiziko postuetan irtetzea tokatu zitzaion eta lasterketa buruan ibili zen, Nicolas Arribas bere taldekideak errepidetik atera zuen arte. Hala ere, bergararra berriz ere zirkuitora itzuli zen eta hirugarren postuan zihoanean, tupust egin zuen Arribas berarekin eta atzeratuta geratu zen. Ibanek ez zuen etsi eta lasterketa burura hurbiltzea lortu zuen baina hirugarren aldiz kotxe batek jo egin zuen eta 6. amaitu zuen karrera.

Igandean 100 bat bergarar izan ziren Jaraman



Arazo ugari izan zituen Rodriguezek Jaramako zirkuitoan.

Rodriguezek igande beltza izan zuela argi dago, lasterketa amaitzea lortu bazuen ere, kotxea zisko eginda geratu baitzizkaion eta egun berean korritu behar zuen nazioarte mailako karrera ezin izan zuen jokatu.

Aukera badu oraindik

Hala ere, Clio 16 balbulako sailkapen nagusiaren lehendabiziko postuan jarratzen du Rodriguezek eta azaroaren 6an Jaraman bertan korrituko den azkeneko proban bere arerioek baino au-

kera gehiago ditu txapel-dun geratzeko. Une honetan 68 puntu ditu eta Jordi Cardoní katalana bigarren postuan aurkitzen da 63 punturekin. Ibanek igandean Jaraman izan ziren zaletuen portaera goraiatu du eta eskerrak eman nahi izan die guztiei BERRIGARRAREN bitartez. Era berean, azaroaren 6an Jaraman txapelketa txanpainarekin ospatzeko lagunak ondoan izango dituela espero du. Hortarako autobusa antolatuko da berriz ere. Ea orduan suerte hobea duen.

DUATLOIA

Isidro Ruedak irabazi zuen joan zen larunbatean jokatu-tako I. Bergarako Duatloia. Atletico Zaleak-ek Surra irratizaleen eta Udala Kirol Zerbitzuaren laguntzaz antolatutako frogako oso interesgarria izan zen, eguraldiak gehiegi lagundu ez arren.

Sailkapena:

1. Isidro Rueda (23.49)
2. Unai Osés (23.49)
3. Iñaki Irigoyen (24.07)
4. Carlos Alday (24.17)
5. Igor Oya (24.21)
6. Ruben Alonso (24.55)

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta plaza 3, behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Mongatxurra	9	5	4	1	0	30	8	
2. Errotagain	9	5	4	1	0	37	20	
3. Madura	8	5	3	2	0	24	13	
4. Bar Canalejas	7	5	3	1	1	20	13	
5. Angiozar	7	5	3	1	1	16	16	
6. Ogizun	3	5	1	1	3	16	23	
7. OH Zerezos	2	4	1	0	3	12	16	
8. Etxagi	2	5	1	0	4	17	26	
9. Uve Bikoitza	1	5	0	1	4	14	25	
10. Guadalest	0	4	0	0	4	7	33	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Kabia	7	5	3	1	1	29	9	
2. Ozaeta	7	5	3	1	1	17	9	
3. Arloteak	6	5	3	0	2	14	10	
4. Usoa	6	5	2	2	1	14	10	
5. Bildurbarek	6	5	3	0	2	15	13	
6. Pagomendi	6	5	3	0	2	17	16	
7. Kayak	4	5	1	2	2	12	19	
8. Arkupe	4	5	2	0	3	14	35	
9. Revienta	2	5	1	0	4	7	12	
10. Ufala	2	5	0	2	3	12	18	

Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Krierium	9	5	4	1	0	14	7	
2. Krai	7	4	3	1	0	12	2	
3. Nahikari Hool.	6	5	3	0	2	9	8	
4. C. Bergara	4	4	2	0	2	12	10	
5. Nekrofilikos	4	5	1	2	2	12	17	
6. A Ze Flaxa	2	3	1	1	1	4	4	
7. Txipiron	1	2	0	1	1	2	3	
8. Kriston Potruak	1	4	0	1	3	2	6	
9. Paok San Juan	1	4	0	1	3	8	18	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Etxenagusia	10	5	5	0	0	44	8	
2. La Juve	7	4	3	1	0	18	7	
3. Shaktale	5	5	2	1	2	20	16	
4. Aldoka Maldoka	4	4	2	0	2	10	8	
5. Amozkibar	4	4	2	0	2	9	11	
6. EH Biterrak	3	4	1	1	2	6	17	
7. Labegarieta	3	5	1	1	3	10	27	
8. Igandekoak	2	3	1	0	2	10	10	
9. Los Txupetas	0	4	0	0	4	9	32	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Soropotroak	9	5	4	1	0	27	7	
2. Hartu Zamak	6	4	3	0	1	21	7	
3. Pikapiedras	6	5	2	2	1	13	7	
4. Eri	6	4	3	0	1	16	11	
5. Ezinleike	6	5	3	0	2	22	19	
6. Kirolzaleak	4	4	2	0	2	9	14	
7. Pata Negra	1	3	0	1	2	2	15	
8. Ari Ari	0	3	0	0	3	5	15	
9. Patxaran Team	0	5	0	0	5	9	29	

emaitzak

Angiozar-Madura **2-6**
 Errotagain-Canalejas ... **6-5**
 Uve Bikoitza-Ogizun **3-3**
 Mongatxurra-Etxagi **4-1**

Pagomendi-Arkupe **1-4**
 Ozaeta-Bildurbarek **3-1**
 Usoa-Revienta **2-0**
 Arloteak-Kabia **2-3**
 Kayak-Ufala **3-3**

Paok-Nekrofilikos **4-4**
 Kriterium-A Ze Flaxa **2-0**
 C. Bergara-Shaktale **1-3**

Labegarieta-La Juve .. **3-3**
 Igandek.-Etxenagusia .. **2-6**
 Amozkibar-Aldoka **0-1**
 EH Biterrak-Shaktale ... **2-2**

Ezinleike-Ari Ari **4-2**
 Kirolzaleak-Soropot **2-9**
 Eri-Patxaran Team **5-2**
 Pikap.-Pata Negra **2-2**

partiduak

IGANDEA

Barruan

9.00: A Ze Flaxa-Txipiron
 (Amozkibar)
 10.00: Amozkibar-Igandekoak
 (Txipiron)
 16.00: Nahikari Hool.-Krai
 (Aldoka Maldoka)
 17.00: Aldoka-EH Biterrak
 (Eri)
 18.00: Soropotroak-Eri
 (Pikapiedras)
 19.00: Ari Ari-Pikapiedras
 (Soropotroak)

Kanpoan

16.00: Etxagi-OH Zerezos
 (Angiozar)
 17.00: Guadalest-Angiozar
 (OH Zerezos)

ASTEARTEA

Barruan

9.00: Txipiron-Krai
 (Igandekoak)
 10.00: Shaktale-Igandekoak
 (Los Txupetas)
 11.00: Los Txupetas-Labegar.
 (Shaktale)
 16.00: La Juve-Amozkibar
 (Hartu Zamak)
 17.00: Hartu Zamak-Ezinleike
 (Construcciones Bergara)
 18.00: A Ze Flaxa-C. Bergara
 (Guadalest)
 19.00: Guadalest-OH Zerezos
 (A Ze Flaxa)

Kanpoan

9.00: Arkupe-Usoa
 (Madura)
 10.00: Madura-Uve Bikoitza
 (Usoa)
 11.00: Kabia-Kayak Os Jardin.
 (Uve Bikoitza)
 16.00: Bildurbarek-Pagomendi
 (Ufala)
 17.00: Ufala-Ozaeta
 (Pagomendi)
 OHARRA: Parentesi artean
 partiduak arbitratu behar
 dituzten taldeen izenak.



Pol-Poleko iturrira irteeera.

Berrogeita hamabi urte dira Pol-Pol mendizale elkarteak sortu zela. Esan digutenez, honako hau izan omen zen lehenengo egin zuten irteeera. Irukurutzetara igo eta gero, Pol-Poleko iturri aurrean atera omen zuten argazki hau.

Hara zeintzuk agertzen diren bertan:

Aurrekaldean makurtuta eta jarrita: Juanito Moreno, Gereka oñatiarra (Chocolates Guereca-koa), Blanca Arriola eta Amezaga lehenengo sekretarioaren alaba.

Zutik, euren atzean: Iñaki Osinaga, Manolo Zubia, Santos Garitano, Pilar Erdabide, Nati Zelaia, berea atzean ezezaguna, Filo Agirre, bere atzean Bernardino Urzelai, Antonio Amezaga, Angeles Zabala, Floren Labaena, Dolores Mujika eta Higinio Agirre.

Atze-atzean: Joxe Erdabide, ezezaguna, Garbiñe Marko, Sole Jauregi, Pildain, ezezaguna.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILLIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK,
HI-FI EKIPOAK,
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

Ezagutu ezazu LILURAn
benetako ongizatea



HOMEOPATIAN ESPEZIALIZATUTAKO
MEDIKUAK DITUGU

ESTETIKA ESPEZIALIZATUA

Mediku homeopatekin elkarlanean jarduten dugu medikuntza estetiko eta prebentiborik eraginkorra lortzeko.

Zure edertasuna zure osasunaren pareko delako, biak era pertsonalizatuan zaintzen ditugu.

Stress-ak, bizimodu geldiak eta toxina gehiegi pilatzeak jan dizkizuten energiak errekuiperatuko dituzu.

Etor zaitetz Bidekurutzeta kaleko 7 zenbakira edo deitu 76 31 71 telefonora, goizeko 9.30etatik iluntzeko 8.30etara astegunetan edo 9.00etatik 14.00etara larunbatetan.



adituak gara loreekin arteak egiten!!

Barrenkale, 28 BERGARA. Tfnoa: 76 04 85
Kalebarren, 1 ANTZUOLA. Tfnoa: 76 62 44

**ERA GUZTIETAKO APAINKETA
LANAK EGITEN DITUGU:**

- Eleizenak
- Automobilenak
- Atarienak
- Andregaietzako erramuak
- Koroak
- Hiletetarako apainketak

ETXE BARRUEN DEKORAZIOA

**DOMU-SANTU EGUNERAKO
(AZAROAK 1) ENKARGUAK
HARTZEN DITUGU.**



HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukalderako altzariak

ESKAINITZA MUGATUA!!

HALTZARIk % 40ko DESKONTUAK
EGINGO DIZKIZU MODELO HAUEK
EROSTERAKOAN: VERONA, CAPRI,
NALIA, LINEA eta OXFORD.

ADI
% 40ko
DESKONTUAK!!
ORAIN

APROBETXA ITZAZU HALTZARI
FAGORen GARANTIAREKIN,
ESKAINITZEN DIZUN AUKERA
PAREGABE HAU.
ZATOZ LEHEN BAIT LEHEN!!